

# **Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana**

**Etxepare Euskal Institutua**

**VI. plangintzaldia, 2018-2022**

## 0. Atarikoa

Txosten honetan jaso dugu Etxepare Euskal Institutuaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana.

Dokumentuaren helburua da erakustea euskarazko jardunak zer toki duen une honetan Etxepare Euskal Institutuan, eta hori hobetzeko zer pauso eman behar diren zehaztea.

## 1. Sarrera

Euskararen Erabilera Arauzkatzeko 10/1982 Oinarrizko Legeak argi eta garbi ezartzen du herritarrek euskara eta gaztelania ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dutela, eta herri-administrazioek eta zenbait erakunde publiko eta pribatuk bermatu behar dietela eskubide hori.

Legearen 14. atalak herritarrei administrazioarekiko harremanetan aitortutako hizkuntza-eskubideak bermatzeko, administrazioaren zerbitzupeko pertsonala arian-arian euskalduntzea aurreikusten du, eta baita administrazioetako plantilletan bi hizkuntza ofizialak jakitea nahitaezkoa duten lanpostuak finkatu beharra ere.

Euskal Autonomia Erkidegoko Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen V. titulua eta hau garatzeko Eusko Jaurlaritzak herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko onartutako erregelamenduzko arauak, euskararen ofizialtasunak funtzio publikoaren eremuan izan beharreko islaren eta herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesuaren oinarri dira.

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 4. xedapen gehigarriak xedatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioei lotuta egonik zerbitzu publikoak eskaintzen dituzten sektore publikoko entitate guztiek (sozietate publikoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, fundazioak eta partzuergoak), nahi eta nahi ez euskara eta gaztelaniaren erabilera bermatu beharko dutela herritarrekin zuzeneko harremanak dituzten zerbitzuetan.

Era berean, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua onartu zuen abenduaren 22ko 6/2003 Legeak xedatzen du, entitate publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dutela, eta kontsumitzaile eta erabiltzaileek eskubidea dutela, entitate publiko hauekin dituzten harremanetan, arreta jasotzeko eurek hautatzen duten hizkuntza ofizialean.

Abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 38. artikuluan xedatzen denez, erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute, era honetan:

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuko establezimenduetan, errotuluak, oharrak eta, oro har, jendeari zuzendutako jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz emango dira.

b) Kontsumitzaile eta erabiltzaileek betetzeko egiten diren inprimaki edo eredu ofizialak bi hizkuntzatan emango dira.

c) Kontsumitzaileak edo erabiltzaileak berak hizkuntza ofizialetako bakarria erabiltzea nahi duela adierazi ezean, bi hizkuntzatan idatziko dira atxikipen kontratuak, klausula ereduak dituzten kontratuak, araupeko kontratuak, baldintza orokorrak eta kontratu horiei buruzko edo horiek egitearen ondoriozko agiriak.

d) Zehazki kontsumitzaileei zuzendutako jakinarazpenak bi hizkuntzatan eman beharko dira, eta baita fakturak, aurrekontuak eta antzeko agiriak ere, kontsumitzaile eta erabiltzaileak berak bi hizkuntza ofizialetako bat bakarrik erabiltzea aukeratu ezean.

e) Bi hizkuntzatan idatziko dira, halaber, produktu eta zerbitzuak erabili eta mantentzeko jarraibideen liburuxkak, berme-agiriak, eta etiketetan eta ontzietan adierazi beharrekoak.

f) Kontsumitzaile eta erabiltzaileei zuzendutako produktu, ondasun eta zerbitzuen eskaintza, sustapena eta publizitatea, erabilitako euskarria edozein dela ere, bi hizkuntzatan egingo da.

Helburu horiek bete daitezzen, elkarre publiko zein zuzenbide pribatuko erakunde publiko horiek, aipatutako dekretuan ezarritako irizpideak erabilia, entitate bakoitzean ezarri beharreko helburuak zein izango diren aztertu eta helburu horiek benetan bete daitezzen hartu beharreko neurriak hartuko dituztela.

Herri-administrazioetan bost urte irauten duten plangintzaldien bidez sustatzen da euskararen erabileraren normalizazioa. Plan horien bitartez, hizkuntza-eskakizunez gainera, bestelako esparruak ere arautzen dira: hizkuntza irizpideak, euskara sustatzeko neurriak, eta abar.

Azkeneko bi plangintzaldiak dira Etxepare Euskal Institutuaren sorreraz geroztik izandakoak. V. plangintzaldian, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2013ko abenduaren 30ean egindako bilkuran V. plangintzaldirako (2013-2017) Eusko Jaurlaritzan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Nagusia onartzeko erabakia hartu zuen. Plana Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2014ko urtarrilaren 24an.

Plan Nagusi horren eranskina sozietate publiko, zuzenbide pribatuko ente publiko eta sektore publikoko partzuergo eta fundazioei dagokiena da eta bertan, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak proposamena egiten du erakunde hauek euren planak onartzeko, izan ere, hori baita euskararen normalizazioari dagozkion helburuak lortzeko biderik eraginkorrena.

Une honetan VI. plangintzaldian (2018-2022) murgilduta daude herri-administrazioak nahiz horri lotutako gainerako erakundeak. Izan ere, 62/2018 EBAZPENAK, otsailaren 27koak, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariarenak, argitaratu zuen VI. plangintzaldirako (2018-2022) euskararen erabilera normalizatzeko plan nagusia onartzeko Gobernu Kontseiluak hartutako erabakia.

Aipatutako Ebazpenaren eranskin gisa onartutako planaren 7. puntuan aipatzen dira VI. plangintzaldi horren eragin eremuan sartzen diren entitateak. Horien artean agertzen da, hain zuzen ere, Etxepare Euskal Institutua, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikitakoen artean.

Bertan berresten da, halaber, bi direla nagusiki hizkuntza arloan entitate hauen betebeharrak ezartzen dituzten arauak: apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duena, eta abenduaren 22ko 6/2003 Legea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua onartu zuena.

Horrezaz gain aipatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorri atxikitako zuzenbide pribatuko erakunde publikoek, administrazio-kontratuak egiten dituztenean, hizkuntza baldintzak eskatu behar dituztela Gobernu Kontseiluak 2006ko otsailaren 28an hartutako Erabakiaren arabera: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorriaren eta beraren erakunde autonomiadunen eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoen administrazio-kontratuak gauzatzeko orduan bete behar diren hizkuntza baldintzei buruzkoa, alegia.

## **2. Etxepare Euskal Institutua**

### **2.1 Sorrera eta helburuak**

Etxepare Euskal Institutua 2007an sortu zen legez (3/2007 LEGEA, apirilaren 20koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute Sortzeko eta Arautzekoa).

Sortze legeak aurreikusi moduan, Etxepare Euskal Institutua berezko gaitasuna eta izaera juridikoa duen zuzenbide pribatuko herri erakundea da, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari atxikitakoa. Egoitza Donostian du, Tabakalera eraikinean (Andre Zigarrogileak 1 plaza, 20.012).

Legez 2007an sortu bazen ere, 2010ean ekin zion Etxepare Euskal Institutuak bere jardunari.

Patronatua, Zuzendaritza Kontseilua eta zuzendaria ditu organo nagusi. Antolakuntza eta Jarduera-araudi Dekretuak xedatzen duenez, Patronatuak 31 kide izango ditu eta Zuzendaritza Kontseiluak zazpi. Patronatuak gutxienez urtean behin bildu behar du eta Zuzendaritza Kontseiluak gutxienez bitan.

2018ko urtarrilaren 9ko 2/2018 Dekretuaren bidez Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak izendatu zuenetik, Irene Larraza Aizpurua andrea da bertako zuzendaria.

Etxepare Euskal Institutuak euskal kulturaren adierazpen esanguratsuenak munduratzea du helburu. Bere xede nagusiak honakoak dira:

- Euskarak nazioartean onespena lor dezan bultzatzea eta sustatzea.
- Euskararen irakaskuntza, ikasketa eta erabilera mundu osoan sustatzea.
- Euskal kulturari buruzko ikerketa sustatzea, bereziki unibertsitate eta goi-mailako ikerketarako erakundeetan.
- Euskal kulturarekiko jakin-mina piztea.
- Euskal Herrian sortutako kultur egitasmoak nazioartean sustatzea: haien hedapena lagunduko duten behar adina neurri eta ekintza bultzatzea, bereziki euskaraz sortutako kultura-eskaintza sustatuz eta bermatuz.
- Euskal sortzaile, eragile eta ekoizleekin batera lan egitea. Haien beharren arabera aukera berriak eskaintzea, nazioarteko erakunde eta kultur sustatzaileengana iristeko bidea zabalduz: egileak aktiboa dira; Institutua, zubi.

Hori guztia kontuan izanik, ezin dugu ahaztu Etxepare Euskal Institutuak EAE ez ezik nazioarte osoa ere baduela lan esparru. Horrek esan nahi du, euskara eta gaztelaniaz gain, beste hainbat hizkuntzak ere erabiltzen dituela institutuak bere jardunean (hitzarmenetan, ahozko ekitaldietan...). Horien artean ingelesa da nagusi, eta hori dela eta, ingelesez ere egiten dira, esate baterako, katalogoak eta argitalpenak. Hori dela medio, planean zehar elebidun hitza agertzen den kasu askotan agian hirueledun izango litzateke hitz egokia. Alabaina, ez dugu uste xede honetarako elebidun/hirueledun bereizteak ekarpen berezirik egingo dionik. Hortaz, bere horretan jarraituko zaio eredu orokorrari.

Gainera, ezin dugu ahaztu institutuak euskara duela langai eta xede, lan eta zerbitzu hizkuntza izateaz gain, aipatu berri ditugun helburuek islatzen dutenez. Institutuak munduko 18 herrialdeetako 35 unibertsitatetan euskararen irakaskuntza eta erabilera bultzatzen du 30 irakasle-irakurleen eskolak eta zabalkunde ekintzak sustatuz. Horri esker euskara nazioarteko hainbat unibertsitatetan ikusgai egin eta euskararen ekarpena zabaltzen da eta 1.800 izen-emate inguru izaten dira ikasturteko A1-B1 mailetan. Gainera, 75 euskal etxe ingurutan euskara eskolak sustatzen dira urtero, eta 1.800 heldu inguru aritzen dira urtero euskara ikasten eta hobetzen. Bestalde, atzerriko solaskide eta euskal elkarte eta eragile hainbatekin aliantzak eratuak ditu euskara nazioartera eraman, zabaltzeko eta onespena sendotzeko.

## **2.1 Organigrama eta langileak**

2010eko abenduaren 20ko Etxepare Euskal Institutuko zuzendariaren ebazpenari jarraiki Institutuan aritzeko zortzi langileren hautaketa-prozesua abiatu zen. Hori medio, 2012 urteko urtarrilaren 9tik aurrera, Etxepare Euskal Institutuan ondokoa da langileen zerrenda:

- Euskara eta kulturako 4 teknikari
- Zuzendaritza-idazkaria
- Administraria
- Komunikazio, Prentsa eta Interneteko agerpenaren arduraduna
- Idazkari teknikoak

Institutuko pertsonala entitatearen zuzendariak eta Euskara sustatzeko eta hedatzeko zuzendariak eta Euskal Kultura Sustatzeko eta Hedatzeko zuzendariak osatzen dute.

2019an beste administrari laguntzaile bat gehitu zaio lantaldeari.

Hori dela eta, honela dago antolatuta egun institutua:

Administrazio atala:

- Zuzendaritza-idazkaria
- Kudeaketako Administraria
- Idazkari teknikoak
- Administrari laguntzailea

Euskara atala:

- Euskara Sustatzeko eta Hedatzeko zuzendaria
- Euskara eta kulturako 2 teknikari

Kultura atala:

- Euskal Kultura Sustatzeko eta Hedatzeko zuzendaria
- Euskara eta kulturako 2 teknikari

Komunikazio atala:

- Komunikazio, Prentsa eta Interneteko agerpenaren arduraduna

Horrezaz gain, komunikazioko arloko praktiketako teknikari batek eta HABEtik zerbitzu eginkizunetan etorritako teknikari batek osatzen dute lantaldea.

### 2.3 Langileen hizkuntza eskakizunak

Ondorengo da langileen hizkuntza eskakizunen taula. Guztiek dute egiaztatuta. Batzuek, gainera, lanpostuari dagokiona baino maila handiagoa dute egiaztatuta.

	Lanpostuari dagokion HE	Une honetan lanpostuan den pertsonak duen HE
Zuzendaria	Ez du	4. HE
Zuzendaritza-idazkaria	3. HE	3. HE
Kudeaketako Administraria	3. HE	4. HE
Idazkari teknikoak	3. HE	4. HE

Administrari laguntzailea	3. HE	3. HE
Euskara Sustatzeko eta Hedatzeko zuzendaria	Ez du	3. HE
Euskara eta kulturako teknikari bat	4. HE	4. HE
Euskara eta kulturako teknikari bat	3. HE	4. HE
Euskal Kultura Sustatzeko eta Hedatzeko zuzendaria	Ez du	3. HE
Euskara eta kulturako teknikari bat	4. HE	4. HE
Euskara eta kulturako teknikari bat	3. HE	4. HE
Komunikazio, Prentsa eta Interneteko agerpenaren arduraduna	4. HE	4. HE
Komunikazioko arloko praktiketako teknikaria	3. HE	4. HE
HABEtik zerbitzu eginkizunetan etorritako teknikaria	Teknikari gaitua	Teknikari gaitua

## 2.4 Erabilera plana garatzeko baliabideak

Erabilera plana aurrera eramateko, giza egiturak zehaztu ditu Etxepare Euskal Institutuak. Ekimen planifikatua garatzeko arduradun bat izendatu du, Euskara Sustatzeko eta Hedatzeko zuzendaria.

Horretaz gain, Euskara Batzordea eta Lantaldea eratu ditu.

### Euskara Batzordea

Erabilera planaren jarraipena egingo du Euskara Batzordeak. Urtean bitan batzartuko da, gutxienez: lehenengoan, erabilera planen gaineko erabaki estrategikoenak hartuko dituzte; eta, bigarrenean, urte amaieran, urteko balorazio txostena onartuko dute, autoebaluaziorako bide emango diena.

#### Partaideak:

- Euskara Sustatzeko eta Hedatzeko zuzendaria
- Idazkari teknikoa
- Komunikazio, Prentsa eta Interneteko agerpenaren arduraduna
- Euskara sustatzeko eta hedatzeko teknikaria

Euskara Sustatzeko eta Hedatzeko zuzendariak deituta batzartuko da Euskara Batzordea, eta, besteak beste, **eginkizun** hauek izango ditu:

- Euskararen egoeraren diagnostikoa onarturik, urterako ekintza plana onartzea, urtero lehen bihilekoan.
- Plana kudeatu eta horren jarraipenari oniritzia ematea.
- Urtero, urte amaieran balorazioa egin, txostena onartzea, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bidaltzeko.
- Urtez urte beharrezko jarraipena eta egokitzapenak onestea, erakundeko erabilera planaren arrakasta ziurtatzeko.
- Euskararen erabilerak gora egin dezan beharrezko diren baliabideak eta neurriak onartzea.

- Euskararen erabilerari ebaluazioa egiteko beharrezko datuak eskuratzea HPSri.

### **Lantaldea**

Euskara Batzordeaz gain, erabilera planaren kudeaketa bideratze aldera, honako lantaldea osatuko da.

#### **Partaideak:**

- Euskara sustatzeko eta hedatzeko teknikaria
- Euskara sustatzeko eta hedatzeko teknikaria

#### **Egitekoak:**

Hilean behin, edo beharrezkoa ikusten dutenean elkartuko dira eta hauek izango dira lantaldearen egiteko nagusiak:

- Plana kudeatu eta horren jarraipena egitea.
- Urtero, urte amaieran balorazioa egin, eta txostena aurkeztea Euskara Batzordeari, ondoren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari bidaltzeko.
- Urtez urte beharrezko egokitzapenak proposatzea, erakundeko erabilera planaren arrakasta ziurtatzeko.
- Euskararen erabilerak gora egin dezan beharrezko diren baliabideak eta neurriak proposatzea eta oniritzia jasoz gero gauzatzea.

### 3. Euskararen erabilera normalizatzeko plana. VI. plangintzaldia

Euskara planaren helburu nagusia da Etxepare Euskal Institutuan euskararen erabilera indartzea eta areagotzea, bai zerbitzu hizkuntza, bai lan hizkuntza modura ere, euskararen erabilera bermatu eta herritarren hizkuntza eskubideei erantzun ahal izateko.

Euskara plan honen helburu estrategikoen helburu nagusia lortzeko landu beharreko ildo nagusiak markatuko dituzte:

- Herritarrekiko harremanetan euskara zerbitzu hizkuntza izan dadin bermatzea, betiere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz. Zerbitzu-hizkuntza.
- Euskara beste administrazioekiko harremanetako hizkuntza izan dadin bermatzea. Harreman-hizkuntza.
- Euskara administrazio barneko lan hizkuntza izan dadin bermatzea. Lan-hizkuntza.

Etxepare Euskal Institutuaren kasuan 2. ildo horretara bideratuko dugu ahalegina. Izan ere, 1. ildoari dagokionez zerbitzua euskaraz ematea bermatuta dago kasu guztietan, eta 3. ildoaren kasuan erabatekoa da euskararen erabilera, ahoz nahiz idatziz.

VI. plangintzaldirako Eusko Jaurlaritzak hainbat gidalerro zehaztu ditu, arlo hauetan jauzi kualitatiboak emateko: Hizkuntza eskakizunak, borondatek haragoko hizkuntza politika, berriazko hizkuntza prestakuntza eta trebakuntza, euskarazko komunikazioak, ahozkotasuna, itzulpen politika, dokumentuen estandarizazioa, kalitatezko komunikazioa, komunikazio digitala, hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, langile eta ordezkari etorri berrientzako protokoloa, prestakuntza orokorra eta kontratazio irizpideak.

Horrenbestez, gidalerro horiek lehentasunezko zatik joko ditugu.

Etxepare Euskal Institutuaren kasuan langile guztiak sartuko dira planean, atal guztiak maila berean baitira euskaldunak.

#### 3.1 Diagnostikoa

Aurreko atalean aipatu bezala Erreferentzia Marko Estandarra (EME), Bikain ziurtagiriarekin bat datorrena, erabiliko dugu planaren oinarri gisa. Hori kontuan izanik, marko hori bera erabiliko dugu hasierako diagnostikoa egiteko ere.

1. *eranskinean* doa aipatutako diagnostikoa.



Plangintzaldi honetan bi motatako planak egingo ditugu:

### **3.2 VI. Plangintzaldi osorako plan estrategikoa.**

Plangintzaldirako helburuak zehaztuko dira, eta zer-nolako emaitzak lortu nahi ditugun helburu bakoitzean.

Plan estrategiko horrek bi ardatz ditu: zerbitzu-hizkuntza eta lan- eta harreman-hizkuntza; eta lehen eta bigarren mailako elementuak, ardatz horien inguruan. Bertan Erreferentzia Marko Estandarreko elementuak hartuko ditugu oinarritzat eta horiek Bikain ziurtagiriarekin lerrotatuta daudenez hori lortzeko bidean jarriko dugu Etxepare Euskal Institutua.

2. *eranskinean* doa aipatutako plan estrategikoa.

### **3.3 Urteko kudeaketa planak**

Bost urteko plan estrategikoan ezarritako helburuak betetzeko urtero-urtero jomugan izango ditugun ardatz, elementu eta adierazleak bilduko dira urteko kudeaketa planean (nork zer egingo duen eta noizko).

3. *eranskinean* doa 2019rako aurreikusitako urteko kudeaketa plana.

### **3.4 Amaierako ebaluazioa**

Amaieran erabilera planaren ebaluazioa egingo da. Ebaluazio horrek esango digu noraino bete diren plan estrategikoan aurreikusitako helburuak. Plan estrategikoaren ebaluazioak, gutxienez, plangintzaldiaren amaieran egin behar dira, eta emaitzak diagnostiko gisa erabiliko ditugu hurrengo plangintzaldirako. Erakundea txikia denez langile guztiek hartu ahal izango dute parte ebaluazio horretan. Hori dela eta, adierazle baliagarriak lortu ahal izango dira, betiere datuak behar bezala haztatuta.

Bi informazio-iturrik elikatuko dute, beraz, plan estrategikoaren amaierako ebaluazioa:

– Erabilera planaren erantzukizuna duten sail bakoitzeko arduradun edo ordezkariak jaso beharreko datuak (errotulazioa, web-orria, aplikazioak, kontratuak, argitalpenak, jendaurreko ekitaldiak, erregistroak...)

– Saitetako langileek ahozko nahiz idatzizko hizkuntza erabileraren inguruan aitortzen dituzten datuak (harrera-hizkuntza, herritarrekiko harreman-hizkuntza, lan-hizkuntza, sortze-hizkuntza...).

## **4. Hizkuntza jarraibideak eta irizpideak**

Plan honen 4. eranskin gisa jaso ditugu Etxepare Euskal Institutuan EAEko bi hizkuntza ofizialen erabileran gidari izango ditugun jarraibideak eta irizpideak.